

Printzesa beltza –ipuin galderaduna–

Urrunean ikusi nuen, Biriaturko eliza alboko hilerriaren ingurumarian: neska bat itaurrean zebilen idi pareta finezia handiz gidatzen. Hurbildu nintzaiolarik, hamazazpi bat urte izango zituela ohar-tu nintzen, eta haren ile adatsaren gaztaina kolore argiari, kasik horiari erreparatu nion; bestalde, haren soineko estua ikusirik, haren galtzerdi ederrak, bitxia iruditu zitzaidan, halako erromeria edo ospakizun intimo batean balebil bezala. Hala bada, eszena bihotz altxagarri haren aurrean, hots egin nuen: “Hau da, hau, neskatiko maratza! Bai eredu-garriak gure lur-arraza euskaldunen dotorezia eta noblezia!”

Nago imajina hark uste baino gehiago hunkitu ninduela; bestela, Hendaia itzulirik, ez bainintzen neskatilaz eta haren lande-kez galdezka hasiko. Eta gisa hartan hasi bainintzen, jakin ahal izan nuen Xoldokogaina mendia-zen azpiko jauregi antzeko hark Muniorte zuela izena, eta historia berezi baten kokalekua izan zela: antza, aspaldi handian Eduardo Plantagenet –ezizenez, Printze Beltza– bertan bizi izan zen, bertan utzi zuen ondorengorik...

Apaiz bat ere izan omen zen, bertan sortua, eta Printze Beltzaren ondorengo zela nabarmentzen ziotelarik, jendea aitazkiatzen zion: “Ezinezkoa da, ile horia naiz eta!”. Apaizak jakin ez, oster, Printze Beltza larruzalagatik ez, baina haren armaduraren koloreagatik esaten ziotela.

Muniortera hurrena inguratu nintzelarik, neskatila landetxera sartzen ikusi nuen, baina etxe jantzian oraingoan –soineko zabal eta zabar baino ez, galtzerdirik ere gabe–, eta haren atzetik ama behar zuena, belar sorta bat buruan hartua. Harengana hurbildurik, Printze Beltzaren galdera egin eta, “Ala erraten dute” (sic), eman zidan arropostua.

Ustekabe ederra hartu nuen, gerora, Printze Beltzaren historia arakatzeari ekin niolarik: Ingalaterrako Eduardo III.aren



ZALDIERO

sema, Galesko Printze hau 1330.ean sortu zen, orduko giro liskartsuan gailendu: Crecyn –Ehun Urteko Gerla–, Poitiersen eta, hurbilago, Naiaran... Shakespearek ere izan zuen haren entzutea eta “Gizonen Marte gaztea” deritzo *Rikardo II.a Erregea* izeneko dramari. Baina kontua da, Akitanian errege zelarik, Euskal Herrira etorri bide zela eta, kondairaren arabera, odol ingeles urdinaren aztarrena utzi zuela hemengo aitoren seme-alabengan.

Neskatila hura gogotik kendu ezinik ibili naiz aspaldian: zein finezia handiz aritzen zen laborantzian idiekin, esku bat uztarrian, akuiluan bestea. Seguruenik ez zuen jakingo, baina haren manerak, haren prestutasunak, harez ile horiztak berak, XX. mende has-tapenean, XIV. mendean izango zuten jatorria.

Ororen buru, gogora datorrik Micheleten pasadizo bat: antza, Montmorencytar batek euskaldun bati adierazi zion bere familiak, gutxienez, VIII. edo IX. mendeetan zuela jatorria, eta euskaldunak arropostu: “Bada, guk, euskaldunok, datarik ere ez dugu!”. Printze Beltza, menturaz, Biriatura bere odola are gehiago nobletzera etorri zen.

* * *

P. S. : Euskaldunok ez bezala, lagun batek opari emandako ipuin hau 1925ean data-tua dago, Hendaian; gaztelaniaz idatzia da eta honako testua *La Princesa Negra* originalaren moldaketa traketsa baino ez da. Eta, hala ere, irakurritakoaren arabera, ausartuko al zinateke egilea nor den esaten? Zure balizko izena –erantzuna– paragrafo bakoitzaren lehen letrak lotuz ateratzen denarekin kontrasta dezakezu gero, izan ere, agian, oraindik ere bizi dugun egoerari buruz zer pentsa emango baitizu, zalantza eragingo baitizu izan dezakezun aurreiritzi bati edo besteri buruz, agian... ■

**Neskatila hura gogotik kendu ezinik
ibili naiz aspaldian: zein finezia
handiz aritzen zen laborantzian
idiekin, esku bat uztarrian,
akuiluan bestea**



irudia:
Antton Olariaga